

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

90/2022 Foru Agindua, ekainaren 13koa. Honen bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuak betetzeko 1/2022 Lehiaketarako deia egin eta deialdi horretarako oinarri arauak onartzen dira

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Autonomoan lanpostu hutsak daude, funtzionarioentzat erreserbatuak, aurrekontu-zuzkidura dutenak eta lehiaketa-prozeduraren bidez bete beharrekoak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 46. artikuluan eta indarrean dagoen Lanpostuen Zerrendan xedatutakoaren arabera.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan aurreikusitako negozio-izapidea bete da, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batgina onartzen duena.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, ondokoa:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan lanpostuak betetzeko 1/2022 Lehiaketarako deia egitea.

Bigarrena. Deialdiaren oinarriak onartzea, deitutako lanpostuen oinarrizko funtzioen deskribapena eta lehiaketan eskainiko diren lanpostu-hutsen zerrenda erantsiko dira: I.,II.,III., Eranskinetan.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan-Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 13a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA

1/2022 DEIALDIAREN OINARRI ARAUAK, LEHIAKETA SISTEMAREN BITARTEZ LANPOSTUAK BETETZEKO GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAN

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostu hutsak lehiaketa sistemaren bitartez betetzea du helburu, III. Eranskinean zerrendatzen direnak, hain zuzen ere.

Halaber, ondore fasean, funtzionarioek III. Eranskinean zerrendatutako lanposturen bat bereganatzean hutsik utzitako lanpostuak lehiaketa bidez bete beharko diren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lanpostuei gehituko zaizkie, baldin eta zerbitzuaren beharrak aztertuta egoki irizten bazaio.

Ondore faserako deialdia 2 hilabeteko epean egingo da, deialdi honetako azken jabetza hartzearen egunetik hasita. Lehenengo fasean parte hartu ez duten edo parte hartu arren lanposturik lortu ez duten funtzionarioek bakarrik parte hartu ahal izango dute ondore fase horretan.

BIGARRENA. LEHIATZAILEEN BETEKIZUNAK.

1. Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko karrerako funtzionario izan, eta ondokoak betetzen dituztenak:

a) Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo lanpostua gordetzea ekartzen duen borondatezko edozein eszedentzia mota hartuta egotea. Era berean, beste herri administrazio batzuetan lan egiteagatik derrigorrezko lan utzialdian daudenek, egitekoak utzarazitakoan daudenek eta borondatezko lan utzialdian daudenek ere parte hartu ahal izango dute lehiaketan jardunerako zerbitzura itzultzeko, baldin eta egoera horietan egin behar zuten denbora bete badute.

b) Deialdi hau argitaratu aurreko bi urteetan, lehiaketa bidez behin betiko destinorik lortu ez izana.

Aipatutako epe hori ez da ezinbesteko betebeharrak izango, baldin eta karrerako funtzionarioak behin-behineko atxikipen bidez berea ez duen beste lanpostu batean badihardu, betetzen zuen lanpostuaren zereginak aldatu direlako, lanpostua deuseztatu delako edo lanpostu horretarako izendatu zuen organoak langilearen ukoa onartu duelako.

c) III. Eranskinean lanpostu bakoitzerako zehazten diren betekizunak betetzea.

2. Lehiatzaileek bete beharreko baldintza horiek esleitutako lanpostuez jabetu arte mantendu behar dira.

3. Lehiaketan parte hartu beharko dute behin-behineko atxikipenean dauden karrerako funtzionarioak, eta lanpostuaren betekizunak betetzeko gai diren lanpostu guztietarako eskatu beharko dute. Aukera guztiak eskatu ez izanaren ondorioz destinorik lortzen ez badu, interes partikularragatik borondatezko eszedentzia-egoeran deklaratu da ofizioz.

HIRUGARRENA. DESTINOA ESKATZEA.

Lanpostuak nahi hurrenkeraren arabera adieraziko dira eskaeran eta baita Seigarren oinarriaren 4. idatz-zatiko merituak ere.

Eskaerak aurkezteko epekan kanpo ez da onartuko uko egiteko eskaerarik, salbu eta horretarako ezarritako aldian egiten direnak deialdi honen zazpigarren oinarrian azaldutako moduan, non eta ez den beste destino bat lortu, deialdi publiko baten bitartez, jabetza hartzeko epea amaitu aurretik.

LAUGARRENA. BALORAZIO BATZORDEA.

Lehiatzaileek aurkeztutako merituak balorazio batzorde batek baloratuko ditu. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

LEHENDAKARIA:

Langileen Arloko zuzendariorde teknikoa edo berak eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.

KIDEAK:

Adinekoen Arloko eta Antolaketa eta Informatika Arloko Zuzendariorde eta Teknikoak, eta Ezinduen Arloko tekniko bat edo beraiek eskuordetzen duten karrerako funtzionarioa.

Langileen ordezkari bat.

IDAZKARIA:

Administrazio orokorreko eskalako A sailkapen-taldeko GOFeko karrerako funtzionario bat, hitzarekin baina botorik gabe jardungo duena.

KIDE-AHOLKULARIAK: Balorazio Batzordeak adituak izendatu ahal izango ditu. Aditu horiek beraien espezialitateei buruzko iritzia izango dute, baina ez botorik.

Balorazio Batzordea ezingo da osatu eta ezingo du jardun presidentea eta idazkaria eta, gutxienez, kideen erdiak agertzen ez badira.

Hautaketa-prozesu honen edozein unetan Balorazio Batzordeak hautagaiaren batek deialdiko baldintza bat edo guztiak betetzen ez dituela jakinez gero, aldez aurretik interesduna entzunda, haren bazterteza proposatuko dio organo eskudunak, hautagaiaren zehaztasunik eza edo faltsutasunik jakinaraziz.

BOSGARRENA. ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera-orriak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, eredu ofizial eta normalizatuan, lanpostuak betetzeko lehiaketaren "Langileen kontsultak" atalaren bidez, Intraneten edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian, ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita 10 egun naturaleko epean.

Eskabideak Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu titularrari zuzenduko zaizkio. Eskabideetan honako hauek azalduko dira:

- a) Deialdi honen Bigarren oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen direlako aitorpena.
- b) Nahi diren lanpostuak eta horien lehentasun-hurrenkera. Lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen duen hautagaiak ezin izango du adierazi lanpostu bat lehentasunezkoztat, lanpostu-zerrendan derrigortasun-data alde bakartzat duen beste lanpostu baten aldean.
- c) Lehiatzaileek alegatutako merituak: Soilik Seigarren oinarriaren 4. idatz-zatikoak izango dira.

Balorazio Batzordeak epe bat ezarriko du zehaztuko dituen merituak egiaztatzeko, eta ezingo da alegatu meritu horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko administrazio agiritegian jasota daudenik. Egindako lana eta lanpostu batean emandako urteak baloratzeko ez da ezer egiaztatu beharko, baldin eta horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean egin badira. Halaber, ez da frogatu beharko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko lanpostuetan egindako denbora, egindako lanaren eta antzinasunaren balorazioaren atalari dagokionez.

Merituak baloratzeko data deialdi hau ALHAOn argitaratu artekoa izango da. Ez dira baloratuko Balorazio Batzordeak egiaztatzeko eskatutako merituak, nahiz eta haien aipamena egin eskabidean.

SEIGARRENA. LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOA.

Lehiaketa honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa, euskaraz jakitearen balorazioa salbuetsita, 14 puntukoa izango da.

Lanpostuak esleitzeko, merituak baloratzean, ondoko faktoreak izango dira kontuan:

1. Egindako lanaren balorazioa:

Balorazio horretan kontuan hartuko da hautagaiek betetako lanpostuen eta eskatutako lanpostuen arteko antzekotasuna, eduki teknikoari eta espezializazioari dagokienez. Gehienez 3 puntu lor daitezke:

a) 0,05 puntu eskatutako lan berberari dagozkion lanpostuetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, 3 puntura arte.

b) 0,022 puntu eskatutako lan berberari dagozkion lanpostuetan lan egindako hilabete oso bakoitzeko, 2 puntura arte.

c) 0,011 puntu, talde berean sailkatutako lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko; gehienez puntu bat.

Idatz-zati honetako puntu kopuru osoa (garatutako lanaren balorazioa) a),b) edo c) idatz-zatian bildutako irizpideak aplikatzearen ondotik lortuko da kasu bakoitzean.

Aurrekoak baloratzeko ezinbesteko izango da merituak pilatutako lanpostuaren jabe izatea langilea, bai lan kontratupeko finkoa edo karrerako funtzionarioa izan delako. Beraz, behin-behineko barne sustapenak eta zerbitzu eginkizunak ez dira kontuan hartuko.

c) idatz-zatiari dagokionez, Lanpostu Zerrendan jasotako egungo sailkapen taldeak eta langileak lan kontratupeko langileak zirenekoei parekatu, eta aintzat hartuko dira.

2. Antzinasuna.

Antzinasunari dagokionez, Balorazio Batzordeak herri administrazioetan egindako zerbitzuak hartuko ditu kontuan. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, 0,2 puntu deitutako lanpostuaren talde bereko edo altuagoko onartutako hirurteko bakoitzeko; 0,10 puntu klasifikazio talde baxuagoko hirurteko bakoitzeko; eta 0,0055 puntu azken hirurtekoaren ondoren egindako hilabete oso bakoitzeko.

3. Egungo lanpostuan egindako denbora

Egungo lanpostuan (lanpostu zehatza egoitza zehatzean) etenik gabe egindako denborarengatik, karrerako funtzionario nahiz lan-kontratudun finko izan, gehienez, 5 puntu esleituiko dira. Hona hemen horretarako erabiliko den eskala:

– 3 urte baino gutxiago: 0 puntu.

– Lanpostuan 37. hilabetea (hura barne) betetzetik aurrera: 0,012 puntu hilabete oso bakoitzeko.

Oraingo lanpostua Indesari lagatako langile gisa betetzen den kasuetan, eskala hau aplikatuko da:

– 0,024 puntu, lanpostuan emandako hilabete oso bakoitzeko.

Aurrekoak baloratzeko ezinbesteko izango da merituak pilatutako lanpostuaren jabe izatea langilea, bai lan kontratupeko finkoa edo karrerako funtzionarioa izan delako. Beraz, behin-behineko barne sustapenak eta zerbitzu eginkizunak ez dira kontuan hartuko.

Lanpostua behin-behineko atxikipenean betetzen ari bada, eta hori karrerako funtzionarioen izaera birgaitzearen ondorioz zerbitzu aktiboan berriro hasi izanetik sortutakoa bada, gehieneko puntuazioa egokitu zaie 3. idatz-zati honetan.

Lanpostuan etenik gabe egindako denborari dagokionez, salbuespen hauek onartuko dira:

– Seme-alabak edo odoleko nahiz ezkontzako bigarren mailara arteko senideak zaintzeko eszedentzia. Horrelakoetan eszedentzia aldi hori lanpostuan emandako denboratzat hartuko da.

– Beste eszedentzia boluntarioetan eta lanpostua gordeta, eta zerbitzu berezietan. Kasu horietan lanpostuan egindako denbora ez da etentzat hartuko, baina ez da aintzat hartuko funtzionarioak egoera horretan egindako denbora.

– Lanpostua lekuz aldatzea borondatezkoa ez den prozeduraren batez –lanpostua ezabatzea, lanpostutik mugiaraztea edo baliabideak berresleitzea–, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legearen bidez aldatuak, 50., 51. eta 54 bis artikuluetan xedatutakoaren arabera. Horrelakoetan, lanpostuan etenik gabe egindako denboratzat lanpostu bietan (amortizatutakoa eta egungoa) egindako denbora hartuko da kontuan.

4. Titulu akademikoak eta prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak:

Gehieneko balorazioa puntu batekoa izango da.

Eskuratu nahi den lanposturako behar ez bezalako titulu ofizialak izatea baloratuko da, baita prestakuntza ikastaroak ere, baldin eta horiek HAEEn edo herri administrazioetako beste eskola batzuen bidez egin, eta eskuratu nahi den lanpostuarekin zerikusi zuzena badute.

Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroetako ziurtagiriek jasotako eskola orduak adierazi beharko dituzte; bestela, ez dute baliorik izango.

Honako baremo honen arabera egingo da balorazioa:

a) Eskuratu nahi den lanpostuaren sailkapen batetik gorako taldeetarako eskatutako edozein titulu egiaztatzea: 0,25 puntu.

b) 20 orduko edo hortik gorako prestakuntza ikastaroak: 0,10 puntu.

c) 50 orduko edo hortik gorako prestakuntza ikastaroak: 0,25 puntu.

d) 100 orduko edo hortik gorako prestakuntza ikastaroak: 0,50 puntu.

b), c) eta d) idatz-zatietan zehaztutakoen batuketak ezin izango du inoiz 0,50 puntu baino gehiago izan.

5. Gradu pertsonala.

Lanpostu mailako osagarriaren maila gainditzen duen langile gradu sendotu bakoitzeko eskatzen den lanpostuan, 0,5 puntu, gehienez ere 2 punturaino iritsiz.

6. Euskararen ezagutza.

Lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizunaren egiaztatzea ondoko hauen arabera egingo da; 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzea, eta ez da prozesuan zehar proba zehatzik egingo hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko.

Derrigorrezko data igarota duten lanpostuetarako ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea lanpostua eskuratu ahal izateko.

Euskara meritua den lanpostuetan egiaztatutako Hizkuntza Eskakizunen bat aurkezten dutenek gainontzeko hautaketa-prozesuan lor daitekeen gehienezko puntuazioaren arabera baloratuko da, honela:

1 HE: 0,70 puntu.

2 HE: 0,84 puntu.

3 HE: 1,54 puntu.

4 HE: 1,68 puntu.

Soilik lanposturako eskatzen den hizkuntza-eskakizuna edo beheragokoak baloratuko dira. Ez da puntuazio altuagorik esleituko hizkuntza-eskakizun altuagoei.

7. Lanpostu baterako lehiatzaile bik edo gehiagok puntu berak lortzen badituzte, ondokoak hartuko dira kontuan: orain arte egindako lanaren balorazioa, antzintasuna egungo lanpostuan, antzintasuna, prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, egun betetzen duen lanaren eskalan karrerako funtzionario gisa sartu zeneko eguna eta Arabako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Foru Planean adierazitako ordenaren arabera. 1.4.3. egintzan zehaztutako irizpideak. Hori guztia, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 51.2 artikuluan onartutako destinoa esleitzeko lehentasun-eskubideari kalterik egin gabe, lanpostu bati behin-behinean atxikita dauden funtzionarioei, aurretik zuten lanpostua kentzearen ondorioz.

8. Destinoaren esleipena jasotzeko behar den gutxieneko puntuazioa.

Destinoaren esleipena jasotzeko behar den gutxieneko puntuazioa 1,2 puntukoa izango da.

ZAZPIGARRENA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen intranetean lanpostu bakoitzerako izena eman duten onartutako eta baztertutako zerrendak argitaratuko dira. Argitaratu den egunaren biharamunetik hasita 3 egun baliodun izango dira erreklamazioak aurkezteko edo aurkeztutako eskabidea baliogabetzeko. Egunak igarotakoan erreklamazioak ebatzi eta, ukorik egonez gero, horiek onartutakoan, onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

ZORTZIGARRENA. EMAITZAK ARGITARATZEA.

Lehiatzaileen merituak araututako eran baloratutakoan, Balorazio Batzordeak lehiatzaileen zerrenda argitaratuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko intranetean, lortutako puntuen arabera. Halaber, 3 egun baliodun emango ditu argitaratu eta biharamunetik aurrera erreklamazioak aurkezteko Balorazio Batzordeari berari.

BEDERATZIGARRENA. DESTINOAK ESLEITZEA.

1. Balorazio Batzordeak, lehiatzaileek aurkeztutako erreklamazioak ebatzitakoan, lortutako puntuen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Lanpostuak esleitzeko lehentasun-hurrenkera aurreko atalean aipatutako zerrendaren arabera lortutako guztizko puntuazioaren eta izangaiek adierazitako lehentasunen arabera izango da. Nolanahi ere, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 51.2 artikuluan aitortzen den destinoa esleitzeko lehentasunezko eskubidea izango dute aurretik okupatutako lanpostua kentzearen ondorioz lanpostu batera behin-behinean atxikita dauden funtzionarioek.

Irizpide horiekin bat, Balorazio Batzordeak destinoak esleitzeko proposamena egingo dio Gizarte Zerbitzuen Saileko titularrak den foru diputatuari.

2. Ezin izango zaie uko egin esleitutako destinoei, eta ezin izango da parte hartu destinoen jabetza hartu eta hurrengo bi urteetan lanpostuak betetzeko egin litezkeen deialdietan, salbu eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 50. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

3. Lehiaketaren ebazpenak berekin badakar funtzionarioa bizilekuz aldatzea, aldaketa hori borondatezkotzat hartuko da eta funtzionarioak ez du kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

HAMARGARRENA. LANPOSTUAZ JABETZEA.

Destinoa lotzen duten lehiatzaileak lanpostuaz jabetuko dira lehiaketaren ebazpenean adierazten den egunean. Ebazpen hori Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatu titularrak emango du berariaz.

HAMAIKAGARRENA. GORABEHERAK.

Balorazio Batzordeari ahalmena ematen zaio oinarri hauetan zehaztu gabeko gai guztietan lehiaketaren hobe beharrez hartu beharreko erabakiak hartzeko eta sortzen diren zalantzak argitzeke.

HAMABIGARRENA. AURKARATZEAK.

Oinarri arau hauek, deialdi bera eta horiei eta Balorzio Batzordearen jardunei darizkien administrazio-egintzak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako egoera eta eratan aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek.

II. ERANSKINA**DEITUTAKO LANPOSTUEN OINARRIZKO FUNTZIOAK****LEHIAKETA 1/2022****ADMINISTRARIA 54**

1. Hurbileko nagusiari administrazio-espeditenteak izapidetzeko eta hartutako ebazpenak praktikan jartzeko prestaketa-lanetan laguntzen dio.
2. Jendea artatzen du.
3. Ebazpenen komunikazioak sortu eta bidaltzen ditu.
4. Dokumentuen sarrera/irteera erregistorako oharrak egiten ditu.
5. Barne-komunikazioak bidaltzen ditu.
6. Datu-baseen eta aplikazio informatikoen mantentze-lanak egiten ditu, eta horiek ustiatzen ditu.
7. Mota guztietako dokumentuak artxibatzen ditu.
8. Informatikoki era guztietako testuak prozesatzen ditu.
9. Hurbileko buruaren idazkaritza-lanak egiten ditu.

ETXEKOANDREA HAURREN ETXEA 61

1. Astero aukeratzen ditu elikadura-menuak eta -dietak, eta otorduak prestatzen ditu.
2. Astero egiten ditu eskaerak, eta fakturak eta albaranak jaso eta erkatzen ditu.
3. Etxea erabat garbitzeaz arduratzen da, bai eta egoiliarren arropa garbitzeaz eta konpon-tzeaz ere.
4. Hezitzaileekin elkarlanean aritzen da adingabeak etxeko lanetan trebatzeko.
5. Hezitzailea ez dagoenean edo adingaberen batek gaixotasunen bat duenean adingabeak zaintzeaz arduratzen da.

ERIZAIN LAGUNTZAILEA 55

1. Erizainen lanpostuan diharduten langileen mendean, erabiltzaileen banako arreta planean ezarritako oinarrizko beharrizanei lotutako programak gauzatzen ditu.
2. Erabiltzaileen banako arreta planaren diseinuan parte hartuko du.
3. Erizain lanpostuko langileei laguntzen die, edo, hala badagokio, eskuordetzaz egiten ditu beharrezko jarduerak. Era berean, hezitzaileei laguntzen die, trebetasunak irakasten eta irakaskuntza-programak gauzatzen.
4. Egoiliarren errehabilitazio fisiko, psikologiko eta sozialean parte hartuko du, haiek suspertu eta ahalik eta ongizaterik handiena ahalbidetzeko ekintzen plangintza egin eta burutuko ditu, eta, hala behar denean, zainketa aringarriak eta hiltzeko unean laguntza eskainiko dizkie, bai erabiltzaileei, bai familiei.

5. Erabiltzailearen ingurunea eta gauzak egoera ezin hobean mantentzen ditu.
6. Arropa zikin guztia jaso eta eramaten du garbitzeko, eta garbitu ondoren, banatu egiten du.
7. Zerbitzu bakoitzean behar diren materialak eskatu eta birjartzen ditu.
8. Egoiliarren bizitza pertsonala eta familia-bizitza sustatzeko jardueretan parte hartzen du.
9. Ezartzen diren erregistro guztiak betetzen ditu, zehazten den euskarrian.
10. Egoiliarren nutrizio beharrak osorik artatzen ditu.
11. Barruko nahiz kanpoko kontsulta, jarduera, terapia edo errehabilitazio-saio eta abarretara joan behar diren pertsonen lagundu eta/edo eramango ditu eta, behar den neurrian, dena delako jardueran lagunduko du.
12. Diziplina anitzeko lantaldearen aldizkako bileretan parte hartzen du, non zerbitzuaren antolakuntza eta egoiliarren egoera aztertzen den.
13. Errehabilitazio-zerbitzuaren kasuan, fisioterapeutaren mende, fisioterapia-zerbitzura eramaten ditu erabiltzaileak, eta arreta jasotzeko prestatzen ditu. Tratamendua amaitutakoan, erabiltzaileari jantzen lagundu, historia eta tratamendu-orriak bildu eta eraman egingo ditu kontrolatzeko.
14. Familiak artatzen ditu eta haiekin lankidetzan aritzen da.

ZERBITZU LAGUNTZAILEA 84

1. Erabiltzaileen arropa, langileen uniformeak, ostalaritzako arropa eta abar jaso, erregistratu eta markatzen ditu.
2. Garbitu aurretik, arropa sailkatzen eta hautatzen du, eta, eskura dauden instalazioen arabera, arropa eta elementuak garbitzeaz, lehortzeaz eta lisatzeaz arduratzen da, bai eta garbitutakoan horiek jartzeaz ere.
3. Kanpoko ikuztegi-talara arropa bidaltzeko eta jasotzeko prozesua kontrolatzen du.
4. Garbitu eta konpondu ondoren, arropa zerbitzuaren eta/edo solairuaren arabera sailkatzen du.
5. Behar diren konponketak eta egokitzapenak egiten ditu arropan (pasaratu, botoiak, etab.).
6. Egoiliarren arropa delikatuak garbitu, lisatu eta erreparasatzen ditu.
7. Eraikinaren garbiketa orokorra egiten du.
8. Sortutako hondakin guztiak bildu eta garraiatzen ditu, baxera zikina, instalaziotik edo zerbitzutik kasu bakoitzerako ezarritako tokira.
9. Ontzi- eta janari-orgak jantokietara eramaten ditu.
10. Jantokiak muntatu eta desmuntatzen ditu.
11. Baxera garbitzen du.
12. Oheak erabiltzaileen geletan egiten ditu.
13. Ekitaldiak eta jarduerak egiten diren espazioak muntatzen, prestatzen eta desmuntatzen laguntzen du.

SUKALDARI LAGUNTZAILEA 62

1. Sukaldariaren menpekotasunean, aurrez egoitzako sukaldariak ezarritako menuak egiten ditu eta/edo janaria prestatzen du zerbitzatzeko, eta egoerak eskatuz gero, menuaren aldaketa posibleak egingo ditu.
2. Sukaldearen garbitasuna egiten du eta/edo officekoa; tresnak, materialak eta bertan dauden instalazioak ere garbituko ditu.
3. Haren arduradunarekin lankidetzan jakien eta/edo materialen eskaerak egiten ditu; jakiak jaso eta biltegian sailkatuko ditu, eta biltegiko jakien sarrera eta irteeren erregistroa eguneratuta mantenduko du.
4. Janaria, ontziteria e.a. garraiatzeko gurdiak prestatzen ditu, eta adierazitako lekuan utziko ditu.
5. AAKPK Plana betetzeko beharrezkoak diren erregistroak egiten ditu.

HAUR-HEZITZAILEA 25

ETXE FUNTZIONALAK:

1. Bere kargu dituen erabiltzaileentzat ezarritako programak gauzatzen ditu, eta horien jarraipena egiten du.
2. Banakako adingabeei arreta emateko programak egiten laguntzen du.
3. Eskolako lanak egiteko laguntza pedagogikoa ematen du eta aldian behin harremanak izaten ditu irakasleekin eta tutorearekin.
4. Etxeko lanak egiteko eta norberaren zainketaz eta higieñez arduratzeko ikasketan laguntzen du, eta jokabide egokiaren, jendetasunaren, entzuten jakitearen eta abarrekoen eredia da.
5. Adingabeen portaera behatzen eta aztertzen du, adingabeen eskariak hautemateko eta horien arabera jarduteko. Bere tutoretzapeko edo ardurapeko adingabeei buruzko banakako txostenak egiten ditu.
6. Erakunde kanpoko profesionalekin harremanak izaten ditu.
7. Taldeaz arduratzen den pedagogoarekin lankidetzan aritzen da etxeko antolaketan.
8. Etxeko gastuen kontabilitatea darama.

ADINGABE ETA FAMILIEN ARLOKO LANTALDETEKNIKOA:

1. Lanbide-erreferentzia nagusia da adingabearentzat, familiarentzat, profesionalentzat, zerbitzuentzat eta kasuarekin esku hartzen duten pertsonentzat, haien koordinazioa esleitu baitaio.
2. Adingabearen eta haren familiaren egoera pertsonalari, familiakoari, sozialari eta ekonomiko-laboralari buruzko informazio eguneratua eta zentralizatua mantentzen du.
3. Laguntza profesionaleko harremana ezartzen du adingabearekin eta familiarekin (harre-ragilea, jatorrikoa, etab.) eta harreman jarraitua mantentzen du.
4. Koordinatu behar duen espediente bakoitzaren harreraren, ikerketaren, balorazioaren eta plan-proposamenaz arduratzen da.
5. Kasu bakoitzaren plana abian jartzen du, adostutako baliabideak eta zerbitzuak kudeatuz, egokituz jotzen dituen aldaketak proposatuz eta, bere taldearen laguntzarekin, proposatutako babes-neurriak gauzatuz.
6. Esleitzen zaizkion kasuak koordinatzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak egiten ditu.

ERIZAINA 26

1. Erizain gainbegiralearen edo, hala badagokio, zuzendariaren mende, erabiltzaileei erizaintzako arreta indibidualizatua eta integrala ematen die.
2. Prebentzio-, sendatze-, jarraipen- eta aholkularitza-jarduerak egiten ditu osasun-arazo desberdinetan.
3. Egoiliarren errehabilitazio fisiko, psikologiko eta sozialean parte hartzen du, haiek suspertzea eta ahalik eta ongizaterik handiena mantentzea helburu duten ekintzak programatzen eta burutzen ditu, eta, hala behar denean, zainketa aringarriak eta hiltzeko prozesurako laguntza eskaintzen dizkie bai erabiltzaileei bai familiei.
4. Erizaintzako zainketak kudeatzen ditu. Lantalde osoarekin koordinatzen da haiek planifikatu eta burutzeko, eta bere mendeko langileen lana antolatzen du.
5. Emandako laguntzaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatzen ditu.
6. Erabiltzaileen zainketei eta egoerari buruzko informazioa ematen die familiei.
7. Zuzendaria eta erizain gainbegiratzailea kanpoan direnean, bera arduratzen da, zentroan, berehala ebatzi beharreko gorabeherak kudeatzeaz, hala nola txanda aldaketak, ordezkapenak edo instalazioetako larrialdiak.
8. Bere jarduketa eremuko txostenak egiten ditu. Eguneratuta edukitzen ditu erizaintzako erregistroak eta bere jarduerari dagozkion dokumentuak.
9. Arlo anitzeko lantaldeko kidea da, lantaldeko gainerako profesionalekin elkarlanean jarduten du erabiltzaileen banakako arreta planak egiten, eta esleitzen zaizkien erabiltzaileen erreferentea da.
10. Harremanak ditu beste erakunde eta/edo zerbitzu batzuekin.
11. Osasun programetan esku hartzen du, pertsona eta taldeei (erizaintzako laguntzaileak, senideak, egoiliarrak etab.) osasun arloko prestakuntza eta heziketa emanez, eta osasun arloko ikasleen irakaskuntzan laguntzen du edota tutoretza lanak egiten ditu.
12. Ikerketa-proiektu jakin batzuetan parte hartzen du.

LANEKO ERIZAINA 132

1. Laneko medikuaren zuzeneko ardurapean, laneko istripuen eta gaixotasunen prebentziorik laguntzen du, prebentzio-plana aplikatuta.
2. Programatutako osasun-azterketetan, probak eta miaketak egiten dizkie erakundeko langileei, eta eguneroko osasun-laguntza ematen die.
3. Banaketa-aplikazio jakin batzuk egiten ditu sendatzeko eta prebenitzeko tratamendu programatuen eta sortutako larrialdien ondorioz.
4. Laneko medikuarekin lankidetzan aritzen da osasun-hezkuntzako eta istripuen prebentzioko kanpainetan.
5. Egunero kontrolatzen du botikinaren izakinen egoera.
6. Administrazio-lanak egiten ditu, hala nola zitazioak, agendaren kudeaketa, eskaerak jasotzea, albaranak, etab.

FISIOTERAPEUTA 28

1. Egoiliarren errehabilitazio-tratamenduak egiten ditu. Prebentzio- eta mantentze-lanak ere egiten dituzte.
2. Jarraitu beharreko lan-jarraibideak eta egin beharreko tratamenduak ezartzen ditu.
3. Errehabilitazioko laguntzailearen gaineko aginte hierarkikoa eta funtzionala betetzen du, eguneroko lana eta paziente bakoitzarekin jarraitu beharreko lan-jarraibideak antolatuz eta bere lanaren jarraipena eginez, behar izanez gero neurri zuzentzaileak hartzeko.
4. Gaixoen bilakaeraren jarraipena egiten du, mediku errehabilitatzailearen kontsultara bidaltzeko beharra baloratzen du, kontsulta hori prestatzen du eta bertan parte hartzen du.
5. Artatutako gaixoak, egunero egindako tratamenduak eta gorabeheren jarraipena sistema informatikoan erregistratzen ditu.
6. Hurbileko nagusi funtzionalari behar den material teknikoa erosteko edota berritzeko proposatzen dio.
7. Prebentzio jarduna koordinatzen du, erabiltzaileen mugimendu egoerari dagokionez, errehabilitazio jarduerak antolatuz.
8. Arlo anitzeko lantaldean parte hartzen du, eta laguntza, aholkuak eta jarduteko ildoak eskaintzen dizkie, bere eskumeneko arloan, erabiltzaileekin zuzeneko tratua duten langileei eta senideei.
9. Erabiltzaileen hondar gaitasun funtzionala baloratzen du, haien banakako entrenamenduak planifikatzen ditu, eta gaitasun horiek mantentzeko eta garatzeko ardura hartzen du bere gain, haien autonomia eta maila funtzionala ahalik eta handienak izan daitezen.
10. Laguntza teknikoak zehazten eta/edo (LLTT) egokitzapen errazak egiten ditu, erabiltzailea eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretan trebatu eta hezitzen (EBJ).

GARBIKETA ETA OFFICE 69

1. Atxikita dagoen eraikinaren garbiketa orokorra egiten du.
2. Langileen eta erabiltzaileen otorduak prestatzen eta/edo birsortzen ditu.
3. Jantokia prestatzen eta jasotzen laguntzen du, eta sukaldea, jantokia eta erabilitako tresna guztiak higiene-baldintza egokietan edukitzeaz arduratzen da.
4. Behar diren elikagaien eta materialen eskaerak proposatzen ditu, eta horiek jaso eta biltegitratzen ditu, ondoren erabiltzeko.
5. Officea garbitzeaz arduratzen da.
6. Hala badagokio, erabiltzaileen arropa zuria eta gainerako langileen uniformeak jaso, garbitu, lisatu eta banatzeaz arduratzen da, jantzi horiek egoera onean daudela kontrolatuz.

MEDIKU PSIKIATRA 8

1. Bere espezialitateari dagozkion gaixotasunen diagnostikoa egiten du erabiltzaileen artean.
2. Patologiaren agerpena kontrolatzen eta prebenitzen du zuzeneko behaketaren bidez eta zuzeneko arretako taldearekin koordinatuta.
3. Txosten idatziak eta ahozkoak egiten dizkie senideei eta erakundeei, osasun mentalari eta dagokion pronostikoari buruz, eta orientabide egokiak ematen dizkie erakundeko zerbitzuen erabiltzaileei eta eskatzaileei.
4. Zentroko talde teknikoko kidea da, eta taldeko gainerako profesionalekin lankidetzan aritzen da egoitzako eta eguneko zentroko erabiltzaileei arreta pertsonalizatua emateko plana egiten.
5. Erakundearen irakaskuntza-jardueretan laguntzen du, hala nola hitzaldiak, ikastaroak, etab., eta, hala badagokio, praktiketako ikasleak, etab.

ERREHABILITAZIOKO MEDIKUA 7

1. Zentroetako medikuek bidaltzen dizkieten erabiltzaile guztien diagnostiko funtzionala egiten du.
2. Erabiltzaile bakoitzarentzako errehabilitazio-tratamendu egokia zehazten du.
3. Bere espezialitatearekin lotutako problematarik agertzen den kontrolatzen eta prebenitzen du zentroen erabiltzaileengan, eta, horretarako, mantentze-lanetako errehabilitazio-programak diseinatzen ditu.
4. Bere espezialitateko erabiltzaileen gaixotasunei buruzko txostenak egiten ditu mediku, senitarteko eta erakundeentzat.
5. Hainbat material ortopediko agintzen dizkie behar dituzten erabiltzaileei.
6. Desgaitasunen balorazio medikoa egiten du, eta, horretarako, indarrean dagoen legerian ezarritako baremoak ezartzen ditu.
7. Zentroko talde teknikoko kidea da, eta taldeko gainerako profesionalekin lankidetzan aritzen da egoitzako eta eguneko zentroko erabiltzaileei arreta pertsonalizatua emateko plana egiten.
8. Erakundearen irakaskuntza-jardueretan laguntzen du, hala nola hitzaldiak, ikastaroak, etab., eta, hala badagokio, praktiketako ikasleak, etab.
9. Desgaitasunen balorazioari buruz eskatzen zaizkion txosten tekniko guztiak prestatzen ditu.

EGOITZAKO MEDIKUA 9

1. Erabiltzaileei arreta medikoa emateaz arduratzen da, prebentzio-ekintza koordinatuz eta antolatuz, elikadura- eta dietetika-arauak ezarriz eta, hala badagokio, beharrezko guardia medikoak eginez.
2. Erabiltzaile bakoitzarentzako tratamendu mediko egokiak diagnostikatzen eta preskribatzen ditu, horien jarraipena kontrolatuta eta jarduteko jarraibideak eta arauak definituta erabiltzaileari arreta emateko prozesu globalean inplikaturako pertsona guztientzat.
3. Erabiltzaileen historial klinikoa egin, berrikusi eta eguneratzen du.
4. Idatzizko eta ahozko txostenak egiten dizkie senideei eta erakundeei, erakundearen zerbitzuen erabiltzaileen eta eskatzaileen osasunari buruzkoak.
5. Egoki deritzon, egoitzako beste zerbitzu batzuetara bidaltzen ditu erabiltzaileak (errehabilitazioa, psikiatria, etab.), bai eta kanpoko beste zerbitzu batzuetara ere, hala nola espezialisten kontsultetara eta abarretara, eta dagozkion txostenak egiten ditu.
6. Zentroko talde teknikoko kidea da, eta taldeko gainerako profesionalekin lankidetzan aritzen da egoitzako eta eguneko zentroko erabiltzaileei arreta pertsonalizatua emateko plana egiten.
7. Erakundearen irakaskuntza-jardueretan laguntzen du, hala nola hitzaldiak, ikastaroak, etab., eta, hala badagokio, praktiketako ikasleak, etab.

AUTONOMIA PERTSONALERAKO ZENTROKO BEGIRALEA 95

1. Bere kargu dituen erabiltzaileentzat ezarritako programak gauzatzen ditu, eta horien jarraipena egiten du.
2. Banakako ikaskuntza-programak prestatzen laguntzen du, erabakitzen den moduan.
3. Egin beharreko lanerako material egokia prestatzen du, bere kargura dauden eskulanen tailerretan tresnak eta lanabesak erabiltzen irakasteko.

4. Oinarrizko laguntza-lanak egiten ditu (garbiketa, janaria, garraioa, higiena, jarrera-aldaketak, etab.), zentrora doazen pertsonekin egin beharrekoak.

5. Ikastegiko arduradunarekin eta lantalde teknikoarekin batera, garatutako jardueren ebaluazioa egiteko eta erabiltzaileen bilakaera aztertze bileretan parte hartuko du.

LANERAKO ZENTROKO BEGIRALEA 56

1. Ezarritako programak jartzen ditu praktikan, egunero esleitzen bere kargura dauden erabiltzaileek egin beharreko zereginak eta jarduerak, eta horien jarraipena egiten du.

2. Programak egiten parte hartzen du.

3. Laneko materiala prestatu eta banatuko du, erabilgarriak prestatuko ditu eta material horiek ezagutzen eta erabiltzen irakatsiko die bere ardurapeko pertsoneri. Era berean, laneko portaera eta jarrera egokiei buruzko prestakuntza emango du, ordutegi, diziplina, parte hartze eta abarri dagokienez.

4. Zentroko lantalde iraunkorrekin edo aldi baterakoekin parte hartuko du, eta Ezinduen Arloko lantaldeekin batera.

5. Lantalde teknikoarekin batera, banako planen ebaluazioan eta diseinuan, laneko estrategietan, baterako programetan eta jarduteko protokoloetan parte hartuko du, prozesuan esku hartzen duten gainerako eragileekin koordinatuta.

6. Zentroko arduradunarekin eta lantalde teknikoarekin batera, garatutako jardueren ebaluazioa egiteko eta erabiltzaileen bilakaera aztertze bileretan parte hartuko du.

7. Adimen-desgaitasuna duten pertsonekin AAIDD egokitze-jokabideak indartzen ditu eta banaka lantzen ditu. Pertsoneri laguntzeko behar diren oinarrizko zereginetan eta instrumentaletan arituko da, bai eta EBJ edo eguneroko bizitzako jardueretan (garbitasuna, jatea, garraioa, higiena) ere, zentrora datozen pertsonekin.

8. Erabiltzaileei laguntzea zentroetarako eta kanpoko jardueretarako planifikatutako irteeretan.

9. Zentroko arduradunarekin batera, lanen ekoizpena eta kalitatea planifikatu eta antolatuko ditu. Harremanetan egongo da lana ematen duten enprekin.

10. Zentroko taldeekin batera, lanerako jarduerak diseinatzen ditu.

11. Senideen batzarretan eta parte-hartzeko batzordeetan parte hartzen du, eta harremanetan egongo da senideekin eta egoiztetako beste profesional batzuekin.

AISIALDIKO ETA DENBORA LIBREKO BEGIRALEA 58

1. Ikastetxeko aisialdiko eta denbora libreko jardueren urteko programazioa egiten du.

2. Urteko programazio hori gauzatzeko behar diren ekintza guztiak antolatu, koordinatu eta egin egiten ditu.

3. Aisialdiko eta denbora libreko ekintzak eta programak ebaluatzen ditu.

4. Atxikita dagoen zentroko diziplina anitzeko talde teknikoan parte hartzen du, esku hartzeko proposamenak egiteko eta egoiliar bakoitzaren Banakako Arreta Planaren diseinuan parte hartzeko.

5. Teknika eta/edo baliabide material berrien ezarpena aztertzen du.

6. Egoiliarren bizitza pertsonala eta familia-bizitza sustatzeko jardueretan parte hartzen du.

EGOITZAKO BEGIRALEA 57

1. Arduradun teknikoek egokitzen jotzen dituzten trebetasunak lantzeko jarduerak, laguntza-jarduerak eta beste eskainiko dizkie baliabideak artatutako desgaituei, erabiltzaileek ahalik eta autonomia pertsonal eta sozial handiena eta gizarteratze egokiena eskura dezaten.
2. Zehazten den eran, gainerako teknikariei lagunduko die baliabidea erabiltzen duten pertsonen laneko planak eta banako laguntzak prestatzen, eta informazio osoa, egiazkoa eta egiaztagarria emango dio unitateko arduradunari esandako pertsonen portaera, jarrera eta trebetasunen inguruan.
3. Desgaitasuna duten pertsonen lagunduko die oinarrizko jardueretan, hala nola jaten, janzen, gorputza garbitzen eta eguneroko bizitzari lotutako gainerako jardueretan.
4. Egoitzan dauden pertsonen lagunduko die medikuaren kontsultara, larrialdietara eta ospitaletara, eta medikuak agindutako tratamenduen jarraipena egingo du.
5. Ardurapeko egoiliarrei aisialdiko jarduerak eskainiko dizkie eta astialdia probesten lagunduko die.
6. Egoiliarrei irakatsiko die etxeke lanetan laguntzen, esate baterako, jatekoa zerbitzatzeko, erratez garbitzen, janaria prestatzen...
7. Zehazten den eran, egoitzako eguneroko lanari lotutako gorabehera guztien berri jasoko ditu idatziz.

MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA 63

1. Eraikinean eta instalazioetan, barnekoetan zein kanpokoetan, lan eta konponketa txikiak egiten ditu.
2. Eraikinari eta bertako instalazioei eragiten dieten gorabeheren jakinarazpenak jasoko dizkie egoitzako profesionalen eta gorabehera horien konponketa programatuko du.
3. Eraikinaren mantentze-lanen liburua betetzen du.
4. Ondore horretarako kontratatzen diren enpresa baimenduek egin beharreko mantentzea duten instalazioei dagokienez, kontratuan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, batez ere, prebentziozko mantentzeari doazkion eragiketarako. Instalazio horietan matxurarik edo gorabeherarik gertatuz gero, arazoaren berri jakinarazi beharko du ofizialaren zuzeneko arduradunak eta/edo instalazioaren mantentzea egiten duen enpresak, eta matxura behar bezala konpontzen dela gainbegiratu beharko du. Aurretiaz programatutako lanak egiteko edo uneko arazoak konpontzeko, kanpoko enpresak edo profesionalak beharrezkoak direnean, lanen jarraipena egingo du.
5. Zentrorako sarbideak, oinezkoak zein ibilgailuak, ahalik eta baldintza onenetan mantentzeaz arduratzen da.
6. Zentroteratik aterako da materiala erostera, tresnak konpontzera eraman eta ekartzera, e.a. Halaber, ordezkotako piezen eta erreminten biltegi egokia du.
7. Material sanitarioaren biltegi orokorraren mantentze-lanak egiten ditu eta zentroetara behar duten materiala banatzen du.
8. Egoiliarrei eta zentroari arreta emateko beharrezkoak diren elementu edo altzari guztiak garraiatzen, biltegitratzen, muntatzen, kokatzen eta/edo erretiratzen ditu.

MANDATARIA 66

1. Lotura gisa balio du barne-mezularitzako zerbitzuari dagokionez (dokumentazioa, posta, pakete ofizialak...) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Gasteizen dituen bulegoen eta zentro guztien artean, bai eta horien eta beste erakunde, instituzio eta partikularren artean ere.
2. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Udalaren, Aldundiaren, Bulego Teknikoen, Eusko Jaurlaritzaren, Epaitegiaren eta abarren arteko korrespondentzia ofizialaz arduratzen da.
3. Zentroko sarrera-kontrola egiten du, bertaratzen diren pertsonen informazioa ematen die eta programa jakin batzuei buruzko inprimaki-ereduak edo eskaerak ematen dizkie, bulegoetara joaten den jendearen abisuak eta dokumentazioa jasotzen ditu pertsona erreferenteei eramateko, eta itxarongela antolatzen du arreta emateko gaien arabera.
4. Zentroen eta/edo erakundeen artean garraiatu behar dena ibilgailu ofizialean sailkatzen eta kargatzen du.
5. Gainerako zeregin guztiek uzten dutenean, eskatutako fotokopiak egiten ditu.
6. Hala badagokio, zentrotik kanpoko deiak behar bezala jaso eta bideratzen ditu.
7. Hala badagokio, erabiltzaileen espedienteak artxibatzen ditu.

PSIKOLOGOA 13

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zentro eta zerbitzuetara joaten diren pertsonen diagnostiko, balorazio eta jarraipen psikologikoa egiten du.
